

Erakundeak beste urrats bat egin du karbono aztarna murrizteko estrategian

Kutxabanken zordunketa eta kreditu txartel berriak plastiko birziklatuarekin egingo dira

- **Eraikuntzatik, poltsetatik eta hondakin mota batzuetako plastikozko beste produktu batzuen hondarretatik lortuko dira**

2022ko maiatzaren 23an. Kutxabankek beste urrats bat egin du bere jarduerak sortzen duen karbono aztarna murrizteko apustu estrategikoan. Apurka-apurka kreditu eta zordunketa txartel guztiak ordezkatzeko ditu, eta hemendik aurrera oso-osorik eraikuntzako **plastikozko material birziklatuz**, plastikozko poltsez eta iraungitako txartelez eginikoak izango dira.

Dagoeneko, Kutxabanken txartelek **karbono aztarna neutroa** dute jada, karbono isuriak CO2 xurgatzeko proiektuekin orekatu edo konpentsatzen dituzten prozesuetan ekoizten baitira.

Kutxabankeko bezeroak birziklatutako txartel berriak jasotzen joango dira, gaur egun erabiltzen dituzten zordunketa eta kreditu txartelen iraungitze-data hurbildu ahala. Aurreko 'CO2 Neutro' txartelek bezala, txartel berriak estalkirik gabe emango dira, plastikozko ontzi mota hau sortzeak ingurumenean duen eragina murrizteko helburuarekin.

Kutxabank **ingurumenarekin konpromiso zehatza** duen finantza Erakundea da. Karbono aztarna negatiboa izan du bi urtez, kudeatzen dituen baso-sailek bere jarduerak sortzen dituen karbono dioxido isuriak xurgatzen dituelako neurri handi batean. Horrez gain, energia garbiz soilik hornitzen den lehen banku Erakundea da. Izan ere, banku-sukurtsal guztiak eta haien lan-zentro guztiak eguzki energiatik eratorritako elektrizitatez hornitzen dira soilik, eta horrek urtero atmosferara 6 mila tona karbono dioxido baino gehiago isurtzea eragozten du.